

Arkaismoak eta berrikuntzak hotsetan (I)

■ Hasperena:

- A (eta B?) XIII. m. arte
- GN (eta G?) X.erako ez
- L-kost XVIII. m.tik aurrera galdu
- BN egun ahulduta

■ Bokal sudurkariak:

- XVI. m. B osoan-edo (*RS*, Madariaga, Garibai), XVII.ean Kap: *erraçoâ, doêac, coroêa* baina *erraçoara, doea, coroea* ere
- XVI. m. A-n ez (?), ezta gainerakoetan
- XX. m. Z-n (eta Err-n) oraindik

Arkaismoak eta berrikuntzak hotsetan (II)

■ Hiato zaharrak

• *-ee-* deklinabidean eta adizkietan B (eta A) arkaikoan eta BZ-ean bildu gabe ohi dago (MIK-renean izan ezik, noski):

- ✓ LAZ: *portaleetan* (A7: 63), *amoreetan* (AL: 1145v), *aldeetara* (AL: 1146v)...
- ✓ MIK: *gausena* (43), *gausetaric* (56), *atetan* (89)...
- ✓ KAP: dekl. *profeteetan* (22-6), *ondasuneetan* (36-7), *laguneenacaz* (103-4), *gauçeeetan* (107-7), *ateetara* (109-27)...
- ad. *dabee* (19-9), *dauqueenac* (19-12)...

• Deklinabidean sortzen diren *e bikoitzak bakunduta* ageri dira beti **Etxep-renean**; berrikuntza ekialdean askoz arinago zihoan, bada:

- ✓ Etxep: *beqhatooren* (I, 50), *çuretaric* (I, 387), *Emazten* (III-izenb.), *Andrec* (III, 6)...

■ Txistukarien oposaketa

- ondo EH guztian
- salb.: kontsonante aurrean eta hitz bukaeran
 - *esta, espada, esne... ones...*
 - hiperzuzenketak: *aztoa... iez...*

Arkaismoak eta berrikuntzak morfologian (I)

■ Hiru graduko artikulua zaharra: *-au (> -or), -ori, -a / -ok, -ak*.

- Eskuarki, 1. graduko artikulua 1. pertsonarekin lotzen da eta 2. gradukoa 2. pertsonarekin
 - ✓ LAZ: *Esperanceau galdu jat* (AL: 1143v), *ene lagunau eta ni goaç ara* (AL: 1147v), *Ene fedeau andia da* (A3: 21), *Pensamentuau daucadala / çuregan enclabaduric* (A16: 17-18); *Ene laztanorrec, / arren, esaçu...* (A5: 13-14), *denporeorrec emun badagui* (A14: 83).
 - ✓ LEIZ: *guciak bilduric seme gaztenor ioan cedin herri vrrun batetara* (Luk 15, 13), *digne ez naicenor* (1 Cor 15, 9).
- Euskara Zaharrean: erdialde eta ekialdean gramatika-hitzetan; mendebaldean Mikoletak eta Kapanagak

■ Ablatiboa (Ikus Lakarra 1996: 158-161). (**B-z eta A-z**)

-rean (1758, Arzadunen dotrinaren 2. edizioan, B-durango): 3 *-rean* eta dozena pare bat *-(r)ik* singularrean; pluralean beti *-etarik*.

-reanik (1858, Bonapartek argitaratutako Laudioko dotrinan).

Arrasto batzuk kenduta, Mendebaldean bakarrik lekokutzen da *-rean*: *ondore(a)n*, *albore(a)ngo*, *-(r)en bat* (??)...

Beraz, pentsa daiteke garai batean hedatuago zegoela, nahiz eta beharbada ez Bz eta Az bezainbat.

• **LAND-k** adibide zenbait ditu (*-re(a)n*): *dolenciarean conualecidu*, *oneren* ‘hemendik’..., baita pluralean ere: *vietaren edozeyn* ‘cual quiera de los dos’.

• **LAZ-k** oso banaketa estua du:

- sing. eta mugg. *-(R)EAN* → *lecurean* (AL: 1140r), *silla baterean* (AL: 1143r), *arean da* ‘harik eta’ (AL: 1143r), *orrean* (AL: 1152r), *onerean aurrera* (AL: 1152v), *espilurean* (AL: 1153v), *bentanarean* (A24: 20), *iturrirean* (A24: 68)... // *-(R)EANIK*: *lecureanic* (AL: 1145v, B23: 82), *arereanic* (A24: 130, B5: 71, B5: 72), *altureanic* (B23: 80), *O[e]reanic* (B37: 1).
- pl. eta mugg. *-TARIK* → *escuetaric* (AL: 1142v), *erri aetaric* (AL: 1146r), *gaxaesun orretaric* (AL: 1151r), *beguietaric* (AL: 1152r)...
- bizid. *-GANIK* (= *gan* + *-(r)ik*): *Sirenaganic* (AL: 1146v), *ugaçabaganic* (AL: 1147r), *niganic* (A10: 18), *çureganic* (A17: 68)...

• **RS-k** ez du pluralik; singularrean, *-(r)ean*-ek erabateko nagusitasuna du, *-(r)ik*-en adibide bakar baten aldamenean:

- sing. -(R)EAN: *escu onerean* (175), *berereango* ‘beretiko’ (182), *gaçean* “de la sal” (273), *Ybarguengorean* “de la de Ybargüen” (273), *alborean* (313), *vrrutireâ* (327), *aorean* (337), *Surean* (360), *hizerean* (378), *leorrerean* (436)...
- sing. -(E)RIK: *Vrrineric* (542)
- bizid. -GANIK: *guextoaganic* (243), *onaganic* (303)...

• **MIK**-k gordetzen du arkaismoa banaketa nagusi beretsuarekin (sing. *-rean* / plur. *-tarik*), baina *-(r)ik* maiz azaltzen da, guztiz leku-izen berezietan; gainera, badu *-(r)eanik* pleonasmooaren agerraldi bat ere.

• **KAP**-renean egoera beretsua da, salbu eta *-rean* biziago ematen duela (ez du sing. *-(r)ik*, eta badu *-tarean* plurala, batere ohikoa ez dena, *-tarik* bakan eta mugatuxe azaltzen den bitartean); halere, badago *-reanik*-en alerik ere.

■ **Prosekutiboa**

• Estuki gordetzen dute idazle zaharrok ablatibo / prosekutibo banaketa (ik. Lakarra 1996: 161-163): sing. *-ti*, pl. (eta mugg.) *-tati*. MIK-k badu jadanik *-tik* berrikuntzaren adibiderik; ez KAP-k, ordea:

LAZ: *biozeti barrura* (AL: 1146v), *beguietati* (AL: 1152v), *florestati beera* (AL: 1153r)...

MIK: *ventanatic* (25), *goxetic* (28), *goxeti* (101), *Orti* “por ay” (176), *ateti* “fuera” (177), *saonchu onetati* “por esta [taza] ondilla” (202)...

KAP: *alde escoatati* (11-22), *çe modutati* (29-7), *gogoti* (87-13), *guerriti* (138-12)...

Erdialdeko ezaugarriak dira, hala sing. ***-tik* berria lehen testuetatik** erabiltzea (gaurko banaketaz, ik. Zuazo 1998b: 198), nola **ablatiboa eta prosekutiboa ez bereiztea:**

✓ Etxep: *gucitic* (I, 319), *cerutic* (I, 330), *hantic* (II, 8)...

■ **a / e oposaketa** (Ik. Lakarra 1996: 165-166).

• Banaketa zaharra: *a* dute **bi pertsonako** adizkiek, eta *e* **hiru pertsonakoek**.

• **Mendebaldeko** testuetan oraindik oposaketa gordetzen da:

LAZ: - *bAdagiçu* (passim), *nAgiçu* (A3: 22) vs. *badEgiçut* (A17: 101), *dEguiçoçula* (AL: 1151r), *dEguidaçula* (AL: 1152v)...

RS: - *dAquiiana* ‘hark hura’ (340) vs. *eztEquian* ‘hark hiri hura’ (431)...

- *dAyc* ‘hik hura’ (178), *dAyda* ‘nik hura’ (422), *dAye* ‘haiek hura’ (227) vs. *dEyc* ‘hark hiri’ (116), *dEyat* ‘nik hiri’ (40), *dEyque* ‘hark hiri’ (136)...

- *dAroa* ‘hark hura’ (79), *nAroa* ‘hark ni’ (419)... vs. *dEroat* ‘hark niri’ (82)

MIK: - *EdandAysu ostera se estEysu gachic* ‘zuk hura’ vs. ‘hark zuri hura’ (117)

KAP: - *emon deguiola* ‘hark hari’ (122-29) vs. *icussi daigun* ‘guk hura’ (23-5)...

• **Ekialdean** galera goiztarra eta indartsua da (BNren ezaugarritzat hartu beharko litzateke). Etxepare:

- ✓ *a* *e*-ren ordez: *Ioan dAraudaçu* (X, 33)...
- ✓ *e* *a*-ren ordez: *dEramagu* (I, 170)...
- ✓ bietara: *dAraut* (VII, 7) vs. *dEraut* (V, 1; XII, 5; XIII, 31)...

Arkaismoak eta berrikuntzak morfologian (II)

■ -de / -e / -te iragankorretan

– *dau-de / dau-e / deu-e / du-e / du-te / die* < **du-e*

EHko bi muturretan (B, Z) *-e* gordetzen da, **erdialdean -te gero eta hedatuago** dagoen bitartean (**Etxeparek** ere *-te*).

Salbuespena: B-ko sartaldeko *daude / euden* bikotea **edun*-en. Ik. Lakarra 1996: 166.

- ArrErr: *asi dira ta onegaz urten daude beralan, Joanicoc eta beste ascoc / eudela parte bertan,*
- RS: *Aberassoc jaya daude...* (4)

■ geroaldiko agintera: *egizu / egikezu, zatoz / zatozke...*

• Gero egin behar den agindu bat adierazten dute (ik. Lafon 1943: I, 516; Lakarra 1996: 171-173):

- ✓ RS: *çagoquez* “estareis” (18), *Çe eyquec* “No hagas” (36), *euquec* “tenla” (234), *Eyquec* “harás” eta *aucaque* “te tendrá” (290), *ez ayte galdu* “no te perderás” (462)...
- ✓ LAZ: *ce eucaiqueçu* ‘ez ezazu eduki (geroan)’ (A27a: 24) *sinis eçaqueçu ene eguia* (B11: 13-14), *Jentil onbrea, ona çatozque, / gura banoçu gozadu* (B14: 11-12).
- ✓ XVI. mendeko beste euskalkietan ez da agertzen, baina bai geroago: adib. EZ *beguirauqueçe, beguira çaqueçu, idequi tçaqueçu...*
- ✓ XIX. mendean Añibarroren (1821) eta Zabalaren (1848) lekukotasunak (cf. Lakarra 1996: 171).

• Esan daiteke, beraz, B-k eta A-k hobeto gorde zutela lehenago orokorra zen ezaugarri bat, eta gainerako euskalkietan aztarna batzuk baino utzi ez zituen (XVII-XVIII. mendeetako G-n hiru adibide).

■ Subjuntibo trinkoa:

- ✓ LAZ: *çure mutil ninçan / gura cenduque?* (A5: 17-18), *Ez dot eguingo gauça gaxtoric, / oy ez dasaçun* “bildur nax” (A9: 9-10).
- ✓ LEIZ: *Eramanen çarete [...] hec eta Gentiléc testimoniage haur dutençat* (Mat 10, 18).

■ [Partizipioa + egin] geroaldiko perifrasi: (ik. Lakarra 1996: 169-171)

- ✓ RS: *Cagoquez exilic ta encun eztaycu guextoric* “Callando estareys y mal no oyreis” (18), *Yl eyquec ta yl aye, ta yre erallea yl daye* “Matar le has y matar te han, y a tu matador matarán” (227).
- ✓ LAZ: *Gugaz etorri nai badoçu, / erraz daiçu ecusi* (A1: 1-2), *beti çaidaz loadu... beti çaguie laudatu* (A6: 12-16), *esequino lagun deyçut* (A7: 111).

■ -zu ‘zuek’: *zuek dozu, zuek zara...*

- Ikus Lakarra 1996: 173-176:

- ✓ LAZ: *cegaiti ni ez nator çuey gachic eguiten, dauçaçun gach orrendaco remedio emayten baxe, eta, ala, [...] aditu eguidaçu esan gura deusudan bervaoc. Çuec jaquingo doçu ece...* (AL: 1153r), *çuec batera / guztioç esan eguiçu: / Amorequin cruel dan[a]c / onela begui pagatu* (AL: 1154r), *A, guiçon doloraduac eta cruelac ceuen bicioendaco! Nola açartu çara çaoçen lecura etorten, claru dacusun azquero biciocaz baño guchiagogaz pagatuco ez doçuna?* (AL: 1154v)...

B-n XIX. mende arteko adibide ugari: *Egiaren kanta*, BB, Barrutia, Prai Bartolome, J.J. Mogel...

Arkaismoak eta berrikuntzak sintaxian (I)

■ aoristoa

- *etor nendin* ‘etorri nintzen’
- *eman nezan, eman negian* ‘eman nuen’

- Ik. Lakarra 1996: 177-179.

• Aoristo perifrastikoa: Oso ondo lekukotzen da gure testuetan, eta batez ere LAZ eta LEIZ-renean:

- LAZ: *ençun eguien, emun eioan* (AL: 1142r), *joan cidin, escatu cidin, eguion erregutu, sar citecenean* (AL: 1142v), *erançun eguion* (AL: 1143r), *citecen espantadu* (AL: 1144r), *ençun eguianeanean* (AL: 1151r), *ecin ucatu eidan* ‘(z)egidan’ (AL: 1152v), *topa nindin* (A25: 2), *il equidan* ‘hil zitzaidan’ (A25: 21), *goza neçan* (A25: 28)...

- RS: *arri citean* “riñieron” (52), *ase nindin* “arté me”(263), *Iaigui cidi* “leevantose” (294), *erra cizan* “quemó” (294), *yrabaci eguia* “ganólo” (319)...
- ETX: *mezu nençan* ‘abisatu zidan’.
- LEIZ: oso ugari.

XVII. mendean fosilizaturik: *Viva Jesus*, *Kapanaga*, *Mikoleta*, *Egiaren Kanta*, *Oihenart*...

• Aoristo trinkoa: Elkarrekin aipatzen badira ere, honako hauen historiaz ezer gutxi dakigunez, ezer gutxi esan dezakegu, ez bada gure testuetan badirela, baina perifrastikoen aldean LAZ-k bederen gutxiago dituela, nahikotxo badira ere:

- LAZ: *bacarric gueratu çala ecusen orduan* ‘ikusi zuen’ (AL: 1151r), *guençuanean* ‘entzun genuenean’ (A13: 13), *ez neguian* ‘ez nuen egin’ (A23: 23), *baesadan* ‘esan zidan’ (A25: 11), *nengusun orduan* ‘ikusi ninduzu(e)n’ (A26: 56)...
- RS: *nenguiâ* “me hizo” (75), *nentorre* “vine” eta *nencarre* “truxe” (332), *çidi* “se hizo” (358)...
- GAR: *Gure mandoa, urac engarren eta urac aroa* “Nuestro macho, el agua te traxo y el agua te lleva” (A19=B8).

XVII. mendeko testuetan adibide bakan batzuk baino ez (batzuk errefracuetan, gainera): *Materre*, *Isasi*, *Kapanaga*, *Mikoleta*. Ez da emankorra.

■ [Partizipioa + joan / eroan] perifrasi ‘ohikotasuna’ adierazteko (ik. Lakarra 1996: 179-181)

- *egin daroat* ‘egin ohi dut’
- *jazo doeana* ‘jazo ohi dena’
- LAZ: *daroae guiadu* (A9: 24), *egon joacen* (A11: 19), *egon doaz* (A23: 53)...
- RS: *erigui daroa* “leuantar suele” (79)...
- **Etxeparek** adibide gutxi: *enganatu darama* (II, 74), *Picher ebilia hauxi diohaçu* (X, 43)...
- LEIZ-k ere adibide gutxi: *galdu doaça, iragan doa*...

■ *egin* / **ezan* / **iron* (xehetasunetarako, ik. Lakarra 1996: 181-185).

- *egin*, **ezan* (NN) / *egin* (NNN) : B, G *ekar dezan* / *ekar de(g)iogun*
- **ezan* (NN) / **erazan* (NNN) : HGN *ekar dezan* / *ekar d(e)razogun*
- **ezan* + **iron* (NN) / **ezan* (NNN): BN-gar-aturrei (+ L?)

B-zko testu arkaikoetan bada oraindik **ezan* ugari, beti ere N-N; A-n ere zeharo normalak dira biak:

- ✓ ArrErr: - *jaunac sumy asala*
- *Aramayo, suac erre açala*

- [ç]erre çeuren Jauna ezçencan ['zintzan'] enpara
- erre deçagu Mondragoe

- ✓ LAZ: - *esan eguidaçu* (AL: 1151v), *beguira eguiçu* (A17: 5), *galdu badaguit* (A24: 37)...
- *adi naçaçu* (A23: 33)...
- ✓ RS: - *jo begui* (72), *escondu ney* (457)
- *Ar ezac* (439), etab. Lakarrak (1996: 210) 21 agerraldi bildu ditu

Arkaismoak eta berrikuntzak sintaxian (II)

■ aditzoina vs. partizipioa

– Hegoaldean (Ik. Lakarra 1996: 185-188):

- *-i*-dunak historiaurrean galdu: *etor nadin, etor hadi, etor naiteke...*
- *-tu*-dunak A, B: XVI-XVII... G: XVII-XVIII...
- LAZ: *sar citecenean* (AL: 1142v), *guera nadila* (AL: 1151v), *acorda çatez, quen çatez* (AL: 1152r), *ar naçaçu* (A17: 41)... baina: *osatu çatezqueala* (AL: 1151r), *asi banadi* (A17: 16), *biurtu...eguidaçu* (A17: 45), *alegueratu didin* (A17: 46), *engañadu ce naguiçu* (A17: 78), *daguigun conbersadu* (A17: 94), *galdu badaguit* (A24: 37)...

– Iparraldean:

- *hasi* (Etxepare), *erazi* (Leizarraga)... Iparraldean aditzoina partizipioa hedatzearen hasikinak (Etxep, Leiz...)
- gero indartu?

► Iparraldean gaur arte iraun duen arkaismoa:

✓ Etxep: *engana niroyen* (I, 71), *venci enaçan* (I, 73), *içul çaqiçat* (X, 72)...

→ Halere, badira han ere **aditzoina ahultzen hasi** zela iragartzen duten zantzuak.

→ Etxepareren lekukotasunaren arabera, Hegoaldean bezalaxe, **han ere -i-dun partizipioetatik hasi zen**, zehatzago silaba bakarreko erroetatik hasi ere:

✓ *vci albaynençac* (VIII-15), *vci naçaçu* (X, 27, 35, 60)...

• Bestetik, *hazi*-k aditzoina perifrastikoetan ere gordetzen du:

✓ *haz ezpaguiniça* (III, 21)

- **TO GEN**: *traxioe baten asmatzean* (Arrasateko erreketan; B, XVI. m.; A, G 1800 arte?) (Lakarra 1996: 191-192).

- Egun ekialdeko hizkeretan bakarrik dago bizirik, baina badira honen **aztarnak BZ eta GZ-eko testuetan**. Beraz, pentsa daiteke **lehenago euskara osoan aukerako erregela** zela, eta **euskalkiek bi hautabide** hartu zituztela: erregela gorde eta hedatzea (ekialdean) edo erregela ezabatzea (mendebaldean).

- *RS*-n ez dago zalantzazko adibide bat besterik, baina bai **LAZ**-renean, espero bezala:

- **LAZ**: *bere biurquetan* (AL: 1143r), *aen gobernaceco* (A24: 77), *araguionen jaateraco* (A24: 89), *salsearen aurquietan* (A25: 7)...

- IPAR: Lehenengo testuetan bertan guztietan aukerakoa da (honegatik, komeni da testuan begiratzea ez bakarrik TO GEN noiz dagoen, baita noiz *ez* dagoen ere, horrelakorik balego):

- ✓ Etxep → bai: *gauçen unsa eguiteco* (I, 63), *beccatoren salvaceco* (II, 92), *nahiago dicit çure iqhustia* (X, 49)...

- ez: *Perfectuqui eguiteco neure confessionia* (I, 66)...

Arkaismoak eta berrikuntzak sintaxian (III)

- **Linschmann-Aresti legea**: ik. [Sarasola \(1980\)](#). Euskara Arkaikoan oro har legea betetzen da. Hala ere, testu askotan (Leiz, Etx, *RS*, Laz...) aurkitzen dira legearen urraketak; horrelakoetan, izenordain ahularen aldeko aldaketa da maizena euskalki guztietan:

- ✓ ETX: *En[e] exayac venci enaçan neure azquen finian* (I, 73)

- ✓ LEIZ: *Deithuren dut ene populu etzena, neure populu* (Errom 9, 25)

- ✓ BET: *Pertenecietan jacaz [...] Iesu-Christo gueure iaun [...] santissimeari* (95)

- ✓ LAZ: *Quen aquit neure beguietatic, ene desdicheonen causea i axan azquero* (AL: 1152v), *Çu çara ene beguioen espilua; / azquero ceure escuogaz il naguiçu* (A17: 63-64)

- **Xrekin Y / X Yrekin = X eta Y**: - *Beragaz Presebalen kaltean* (B, XVI. m.)

- *Biz gloria aitearekin semearenzat* (G, XVI?)

- *Xrekin Yren arte-* (G, XIX. m.: Iztueta, Arrue...)

(Ik. Lakarra 1996: 193).

- ✓ LAZ: *çurequin ene aitasuna ‘zure eta ene ahaidetasuna’* (AL: 1142v), *Doridogaz Silveroren bervac / çerren ez even sinistu* (AL: 1154r), *isasoorec horve guztiaz ‘itsaso horrek orbe guztiaz, itsaso horrek eta orbe guztiak’* (A6: 15), *az chiquirra vioçagaz lecarroela señaletan* (A25: 36)...

- ✓ *RS*: *Oguiagaz hura, oragaz heroen elicatura* “Pan con agua, mantenimiento de loco y mastín” (246)